

JUSTIFIKAZIOA

Lehenik eta behin, gaur egungo biztanleria piramidearen egitura alderantzizkoa da, hau da, haur gutxi eta hirugarren adineko jende asko dago. Honek, gizartearen oreka apurtzen duenez, baliagarria ikusten dugu gure produktuaren erabilera. Alde batetik, gaur egun gizartean pairatzen dugun estresaren eraginez, ez dugu denborarik hartzen gure buruaren zaintza bermatzeko. Bestalde, hirugarren adineko pertsona ugari daudenez, dependentzia maila ere goraka doa. Hortaz, gure produktuak eskeinitako zerbitzua zenbait pentsonentzat irtenbide bat izango litzateke.

Teknologiari dagokionez, aurrera pausu handiak eman ditugu. Honekin, gure produktua eskaintzeko erreztasuna eduki dugunez, biztanleentzat mesedegarria izango den produktua diseinatu dugu.

Azkenik, merkatuan arakatu ondoren, ohartu gara guk diseinatutako produkturik ez dagoela oraindik. Beraz, ditugun baliabideei esker, gure produktuaren sorkuntza proposatu dugu. Aldi berean, Adinberri Fundazioaren berri izan dugu eta hauen proposamena ikusi ondoren, bat egin dugu. Hau da, Adinberri Fundazioak, hirugarren adinekoen bizi-kalitatea bermatzeko lan egiten du, zahartze aktibo eta osasungarria sustatuz. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu gure produktuaren proposamena.



DESKRIBAPENA

Gure produktua AOKSAK izeneko ilea garbitzeko kaskoa izango da, non orokorrean aniztasunean oinarrituta dagoen. Hau da, gure produktua behar ezberdinak asetzeko sortua da eta bide batez, bezeroen zein langileen denbora murrizteko egokia izango da. Kaskoa, hiru banagailuz osatuta dago; xaboi banagailua, uraren banagailua eta lehorgailuaren banagailua. Bestalde, lau pintza edukiko ditu eta hortaz gain, erabilitako ura kanporatzeko, hodi bat izango du. Azkenik, pilen bidez funtzionatzen duen hiru botoi izango ditu kaskoak.

Gure produktua osatzeko materiala, hainbat enpresekin kontaktuan jarri ostean, segurtasun handiena eta ekonomikoki egokia den enpresarekin hitzartuko dugu gure eskaintza. Gure produktuaren materiala, termoplastikoarekin egindako kaskoa izango da. Kasko barruko pintzak, silikonazkoak izango dira, bezeroaren buruan ez dezan minik egin. Bukatzeko, banatzaileak eta hodiak plastikozkoak izango dira.

Gure produktuaren izena jartzerako orduan zalantza asko eduki genituen. Azkenean, kaskoa hitza euskaraz polita zenez eta gure hizkuntza mantendu nahi genuenez, kaskoa hitza alderantziz jartzea pentsatu genuen. Azken batean, kaskoa denez, izenak ere produktuarekin lotura eduki behar du, hortaz, ideia bikaina iruditu zitzaigun AOKSAK izena jartzea.